

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezero berriak erakartzeko, digital marketina, sare sozialetako iragarki segmentatuak eta influencer kolaborazioak erabiliko ditugu, produktuaren abantaila nagusia azpimarratuz: beti batera edukitzea eguzki energia berriztagarriari esker.

Bezeroak mantentzeko, esperientzia erraza eta pozgarria eskainiko dugu, erosketa osteko jarraipena, laguntza pertsonala eta erabiltzaileentzako gomendioak barne.

Gure enpresak bezeroekin harreman hurbil, fidagarri eta erraza ezarri nahi du. Komunikazioa argia izango da, laguntza azkarrarekin eta erabiltzaileen feedbacka kontuan hartuta. Helburua epe luzeko konfiantza sortzea da.

Laguntza pertsonala: Bezeroek aholkulari edo zerbitzu-ordezkarri batekin zuzenean komunikatzen dira.

Laguntza pertsonal eskainia: Bezero bakoitzaren beharretara pertsonalizatutako laguntza.

Autozerbitzua: Online dendetik bezeroek beraiek bakarrik erabakitzen dute zer nahi duten inoren laguntzarik gabe.

Zerbitzu automatizatuak: Teknologia erabilita bezeroei laguntza azkar eskaintzea funtsezkoa da, horregatik gure langile talde bat galdera ohikoak modu eraginkorrean konpontzen egingo dute lan.

Bezeroekin harreman ona izateak ideia berriak sortzen ditu eta dirua irabazteko aukera gehiago ematen du, adibidez, kuota finkoak, zerbitzu gehigarriak edo osagarriak saltzea. Horregatik, bezeroekin harremana ez da komunikazioa soilik; diru-iturri bat ere bada.